

## **Hik Hasi. Udako topaketak. 2014.**

### **Pedagogia Sistemikoa ikasgelan**

**Irakaslea: Josune ALBERDI AGIRRE. Euskal Herriko Pedagogia Sistemikoaren Eskola.**

**Uztailak 2, 3 eta 4 | 9:00-14:00**

Pedagogia Sistemikoa hezkuntza paradigma berria da. Hezkuntza arloan errealitate zabalagoa hartzen du kontuan. Hezitzailearen rolean jartzen du arreta berezia, hura baita datozen belaunaldien ikas-prozesuko eragile nagusia.

Ikuspegi honen berrikuntza nagusia hezkuntzarekiko begirada eta jarrera aldatzea da. Aldaketa hau behar-beharrezkoa da. Ikasgelan sortzen diren zailtasunei eta gatazkei aurre egiteko hezitzaileak eta ikasleak dituzten baliabideak areagotzen ditu. Pedagogia sistemikoak haurren errealitatea bere osotasunean hartzen du kontuan eta hezitzailearen baliabideak eta trebeziak sendotzeko ahalegina egiten du. Izan ere, hezitzaileak ikaslearen heldutasun eta formazio prozesuan eragin handia izan dezake. Norbere sisteman ordena txertatzeak heziketa erabakigune egokitik egiteko aukera ematen digu.

#### **Helburuak:**

- Sistema ezberdinetan, familiaren sisteman zein hezkuntza sisteman, ordena edo hurrenkera aitortzea.
- Hezitzailearen begirada zabaltzea, ikaslearen dimentsio guztiak eta sistema guztiak kontuan hartuz.
- Errealitatea eta honen mugak behatu. "Irakasleak baino ez gara".
- Ikasleriaren aniztasuna eta bere testuingurua onartu. Familia mota ezberdinak, adopzioak, kultura ezberdinak...
- Autoritatea edo agintea zaintze eta indartze elementutzat hartu, irakasleari, gurasoei eta ikasleari, bakoitzari bere lekuan egoten laguntzeko.
- Dagoena dagoela onartu, horixe baita gatazkaren konponbidearen abiapuntua.
- Hizkeraz ohartu eta ikasleekin eta haien familiekin ditugun esku-hartzetan tresnaeraginkortzat erabili.
- Ikasle bakoitzaren oinarrizko beharrak ezagutu oreka zaintzeko tresna gisa.

#### **Edukiak**

- Ikuspegi sistemikoa ikasgelan: kide izan, bakoitzaren funtzioak, ordena edo hurrenkera.
- Errealitate subjektiboa versus errealitate objektiboa.
- Gatazken ebazpenerako hezitzaileak izan beharreko jarrerak ikuspegi sistemikoaren arabera.
- Autoritatea edo aginte egokia: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua babesteko eta indartzeko hezitzaileak hartzen duen tokia.



- Familia motak eta jardute-erak.
- Barne hartze (inklusio) edo kanporatze (esklusio) eremuak. Non jartzen du begirada hezitzaileak?
- Harreman-lotura edo binkulazioa elementu integratzaile gisa ikasgelan.
- Hizkuntzaren erabilera: aitortza, indarra hartzea eta kokapena.
- Berariazko elkarrizketa familiekin: helburuak , erabili beharreko hizkera berbala eta ez berbala, eta euste-lana. Protokoloa.
- Esku-hartze sistemikorako teknikak eta baliabideak.

**Metodologia:**

- Teoria eta bizipenak. Ariketak: banaka eta talde txikietan.